

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2023 000002268

Espediente-zenbakia: 2023/IDA_ERA_0035

Xedea: BERMEOKO KULTUR TALDE, ELKARTE ETA PERTSONA FISIKOEI URTEKO KULTUR ETA JAI EKIMENAK FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZEN 2023. URTEKO DEIALDIAK ZABALTZEA ONARTZEA

Aurrekariak

Lehenengoa: 2022ko abenduaren 19an, udal Osoko Bilkurak, 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea erabaki dau. Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan.

Bigarrena: 2023ko martxoaren 31ko Osoko Bilkurak, Bermeoko kultur talde, elkarte eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen deialdiaren oinarri zehatzak onartu dauz.

Hirugarrena: 2023ko apirilaren 28ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bermeoko kultur talde, elkarte eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri zehatzak argitaratu dira.

Laugarrena: 2023ko maiatzaren 11n, Kontuhartzaile andreak aldeko fiskalizazio txostena egin dau.

Argudioak

Lehenengoa: Gastuek beharrezko kontsignazioak daukiez (RC 2023/000331, RC 2023/000332 eta RC 2023/000348)

Bigarrena: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. Artikulua eta erlazonatutakoak.

Hirugarrena: Dirulaguntzen deialdiak onartzeko eta zabaltzeko ahalmena Alkatetzarena da baina 2022ko ekainaren 16ko 2022/2037 zenbakidun Alkatetza dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu da. Holan izan arren, kasu zehatz honetan, premiatasunagaitik, eskumen hori abokatzea proposatzen da alkateak zuzenean eroateko.

Erabagia

Goian aitatuko guztia kontuan hartuta, honako hau erabagi dot:

LEHENENGOA: Bermeoko kultur talde, elkarte eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen 2023. urteko deialdiak zabaltzea onartzeko, Tokiko Gobernu Batzarrengan egindako delegazinoa abokatzea, alkateak zuzenean erroteko.

BIGARRENA: Bermeoko kultur talde, elkarte eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen 2023. urteko deialdiak zabaltzea onartzea.

HIRUGARRENA: Deialdi honeen publizitatea Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bideratzeko agindua emotea Kultura eta Hezkuntza Sailari.

LAUGARRENA: Deialdi honeen publizitatea Bermeoko Udalaren web gunean txertatzeko agindua emotea ATB Sailari.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinan .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000C7A8A00J4S4C5L808V2

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 15/05/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/05/2023
10:08:28

EXPEDIENTE ::
2023IDA_ERA_0035
Data: 08/03/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

